

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak 2013. urteko hitzarmena berri dute

Lankidetza honen esparruan argitaratu da Araitz-Betelu, Basaburu Nagusia, Imotz eta Larraun ibarretako euskararen gaineko liburua

Miércoles, 10 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuaren eta [Euskaltzaindiaren](#) arteko lankidetza 1918. urteik honakoa da. Lankidetza horri jarraipena emanez, Maximino Gómez [Euskarabideko](#) zuzendari kudeatzaileak eta Andres Urrutia Euskaltzainburuak gaur izenpetu dute, Iruñean, 2013. urteko hitzarmena.

Hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak aurten 80.000 euro erabiliko ditu Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoan eginen dituen lanetarako eta Foru Komunitatean onomastikako eta toponimiako lanak egiteko.

Era berean, Nafarroako Gobernuak hitzematzen du Akademiaren Hiztegi Batua osatuko duela, Nafarroako euskalkietako hitzak sartuz, hizkuntza kalitateko zerbitzua abian jartzen lagunduko duela eta Akademiak eskatutako testuak gaztelaniatik euskarara itzuliko dituela. Euskarabideko plantillako langileak arituko dira horretan.

Gogora ekarri beharra dago Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza 1918. urtean hasi zela, urte horretan eratu baitzen Akademia. Nafarroako Foru Diputazioa izan zen erakunde eratzaitetako bat. 2002. urteik hona, bi erakundeek aldebiko hitzarmenak izenpetu dituzte Euskaltzaindiak euskararen gaian Nafarroan egindako lanak finantzatzeko.

[Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen](#) arabera, Euskaltzaindia erakunde aholkuemaile ofiziala da, hizkuntza arauak ezartzeko eta toponimiari buruzko txostenak egiteko.

Nafarroako ipar-mendebaleko euskara

Lankidetza honen esparruan, Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak Mendaur bildumako hamargarren liburukia aurkeztu dute gaur. Foru Komunitateko ipar-mendebaleko Araitz-Betelu, Basaburu Nagusia, Imotz eta Larraun ibarretako euskara aztertzen da liburu



Maximino Gómez-ek eta Andrés Urrutiak hitzarmena sinatu dute.

honetan.

Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa liburuak Amaia Apalauza Olloren doktore-tesia biltzen du. Iñaki Camino irakaslearen zuzendaritzapean, Bikain Cum Laude jaso zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko campusean 2011ko apirilaren 11n defendatutako tesiak.

Liburuko 583 orrietan bildu eta aztertzen da Araitz-Betelu, Basaburu Nagusia, Imotz eta Larraun ibarretako euskara, Iruña eta Tolosa (Gipuzkoa) lotzen zituen komunikabide zaharraren inguruan kokaturikoa. Horretarako tokiko jendeari elkarrizketak eta inkestak egin dizkio egileak.

Datu linguistikoez gainera, argitalpenak bestelako datu interesgarriak biltzen ditu, hala nola, eskualdeko demografiari, ekonomiari, historiari eta geografiari buruzkoak. Inguruko harreman sozioekonomikoei arreta berezia egin zaie jasotako hizkuntza datuekin gero gurutzatu ahal izateko.

350 ale argitaratu dira eta salgai daude [Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsean](#) eta liburu dendetan.